


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,2 jaitsi ziren 2018ko azaroan aurreko hilaren aldean

2017ko azaroaren aldean %2,1 gehitu ziren kostuak

2018ko azaroan Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen aurreko hilaren aldean, eta azarorako urte arteko tasa %2,1 gehitu, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean lan-eskuaren kostuan ez zen aldakuntzarik izan (%0,0) eta lehengaien kostua %0,3 gutxitu zen.

Lehengaien kostuen barnean, Etxegintza %0,2 jaitsi zen aurreko hilaren aldean eta Obra Zibila %0,8. Urte artean, bi azpisektore horiek zeinu bera dute erakusten, baina intentsitate diferentearekin, Etxegintzan lehengaien kostuak %2,0 gehitu baitira, eta Obra Zibilean %3,1.

Kontsumitutako lehengaietan urte artean (2018ko azaroa 2017koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: *Petrolio-fintzea*, %11,2rekin; *Metalurgia*, %4,9rekin; eta *Industria kimikoa* eta *Energia elektrikoa eta gasa*, %4,2rekin kasu bietan. Aldiz, prezio hazkunderik txikienak lehengaietan azken hamabi hiletan: *Kautxu* eta *plastikoa*, iazko balioak

errepikatzen dituen (%0,0), *Material elektronikoa*, %0,4ko igoerarekin, eta *Material elektrikoa*, %0,7ko gehikuntzarekin.

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2018ko Azaroa

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	104,7	-0,2	2,1	2,3
Eraikinak	104,7	-0,2	1,9	2,2
Obra zibila	105,2	-0,6	2,8	3,0
LEHENGAI	103,3	-0,3	2,1	2,5
Eraikinak	103,2	-0,2	2,0	2,4
Obra zibila	103,8	-0,8	3,1	3,4
LAN-ESKUA	109,8	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62